



Saltxitxak
eguzkipean

Raymond Plante



elkar

Mutil gaztea baldin bazara eta neska batekin ateratzen bazara, dirua behar duzu poltsikoan. Ikaslea baldin bazara, berriz, ezin ibiliko zara egunero gurasoei eskatzen eta azalpenak ematen. Horregatik, uda iristerako lan bila hasi da François Gougeon, "azken babalorea". Errepide ondoko saltxitxa-postu batean aurkituko du lantokia, eta han aritu beharko du, eguzkipean gogor lanean. Gauzak ez dira uste bezain errazak ordea: nagusi eta gurasoekiko betiko arazo txikiez gain, bere harreman sentimentalak ere okertzen hasi zaizkio: Anik-ekin ateratzeko dirua behar, eta egun osoa lanean emanda ezin inoiz Anik ikusi. Hala ere, egoerari umorez aurre egiten saiatuko da François, eta bere kontaeraren bitartez jasoko dugu nobela alai eta dibertigarri hau.

Raymond Plante idazle quebecarra da, gazteentzako liburuekin arrakasta handia lortu duena Kanadan nahiz beste herrialde askotan. Euskaraz ere, orain baino lehen *Azken babalorea* eleberria kaleratu du (Branka, 16), François Gougeon protagonista berarekin.